

BILBOKO ALKATEAK KANALEKO PASEALEKUA INAUGURATU DU, ZORROTZAURREKO PLAN BEREZIKO LEHENENGO BIDE BERRIA

- Izen berria Deustuko barrutiko auzo-elkarteen batera aukeratu da, parte-hartze bidezko prozesu batean.
- Kanaleko pasealekua Deustuko kanal zaharraren alboko bidea da, paraleloan doana Zarandoa etorbidearekin, Morgan kalearekin eta Ballets Olaeta kalearekin. Frank Gehry zubiaren elkargunean hasi eta Agirre Lehendakariaren etorbidearekin batera amaitzen da. Ez du eraginik etxebizitzetan ez komertzioetan.
- Kanaleko pasealekua 2 kilometro baino luzeagoa da: bera da gaur egun oinezkoen biderik luzeena urian.
- **Bilboko kale-izendegiak 916 kale dauzka gaurtik aurrera.**

(*Bilbon, 2022ko urtarrilaren 14an*).- Juan Mari Aburto Bilboko alkateak udal korporazioko zenbait ordezkarirekin Kanaleko pasealekua inauguratu du gaur goizean, Zorrotzaurreko Plan Bereziko lehen bide berria.

Izen berri hori parte-hartze bidezko prozesu baten emaitza da; prozesu horretan Deustuko barrutiko auzo-elkarteen parte hartu dute eta haien ere inaugurazio-ekitaldian izan dira.

Aburto alkateak herritarren kolaborazioa azpimarratu du eta gogora ekarri du bizilagunen parte-hartzeari esker beste hiru kale-izen erabaki direla: San Ignazioko zubia, Gallegataginak eta Sabina de la Cruz, denak Zorrotzaurreko ingurunean.

Hala, Bilboko alkateak azpimarratu duenez, “*Zorrotzaurre aurrera doa; urratsak egiten ari gara berroneratzean, berreraikitzean, gure apustu handirantz: Bilbo uri berritzailea, ingurumenerako jasangarria, unibertsitate-uria eta uri sortzailea izan dadila. Bilbotar guztientzako espazio berri bat sortzea, ikasteko, lan egiteko, ondo pasatzeko eta bizitzeko*”.

KANALEKO PASEALEKUA

Kanaleko pasealekua Deustuko kanal zaharraren alboko bidea da, paraleloan doana Zarandoa etorbidearekin, Morgan kalearekin eta Ballets Olaeta kalearekin. Frank Gehry zubiaren elkargunean hasi eta Agirre Lehendakariaren etorbidearekin batera amaitzen da. Ez du eraginik etxebizitzetan ez komertzioetan.

Eremu horretako hirigintza-jarduketen ondorioz, baja emango zaio udalaren kale-izendegian Deustuko Kanaleko kaleari; izan ere, inguru horretako urbanizazio berriarekin, kale hori osorik desagertu da.

Kanaleko pasealekuarekin, Bilboko kale-izendegian 919 kale daude.

Kanal pasealekuko plakak 2016ko azaroaren Osoko Bilkurak onartutako irudi ofizialarekin jarri berri diren lehenak dira. Aurreko plaketan erabilitako bertsioaren aldean, aldaketa nagusiak ezkututik koroa desagertzea da, baita ereinotzaren eta olibondoaren adarra ere. Eta bere forma, gainera, ez da hain obalatua.

EL ALCALDE DE BILBAO INAUGURA PASEO EL CANAL, LA PRIMERA NUEVA VÍA DEL PLAN ESPECIAL DE ZORROTZAURRE

- La nueva nomenclatura es fruto de un proceso de participación con las entidades vecinales del Distrito de Deusto.
- Paseo el Canal es la vía colindante al antiguo Canal de Deustu, discurre de manera paralela a Avenida Zarandoa, Calle Morgan y Calle Ballets Olaeta. Comienza en la intersección con el Puente Frank Gehry, finaliza en la parte final de la Avenida Lehendakari Aguirre y no tiene afecciones en viviendas, ni en comercios.
- Con más de 2 kilómetros Paseo el Canal es, en la actualidad, la vía peatonal más larga de la Villa.
- El callejero de Bilbao tiene desde hoy 916 calles.

(Bilbao, 14 de enero de 2022).- El Alcalde de Bilbao, **Juan Mari Aburto**, acompañado por representantes de la Corporación Municipal, ha inaugurado esta mañana **Paseo el Canal**, la primera nueva vía del **Plan Especial de Zorrotzaurre**.

Esta nueva nomenclatura es fruto de un proceso de participación con las entidades vecinales del Distrito de Deusto, que también han participado en el acto de inauguración.

El Alcalde Aburto ha puesto en valor la colaboración de las y los vecinos y ha recordado que gracias al mismo proceso de participación vecinal se han decidido otros tres nombres de calles: Puente San Ignacio, Galleteras y Sabina de la Cruz, todas ellas en el mismo entorno de Zorrotzaurre.

Así, el Alcalde bilbaino ha destacado que “*Zorrotzaurre avanza, seguimos dando pasos en la regeneración, en la reconstrucción de nuestra gran apuesta de futuro como ciudad innovadora, sostenible, universitaria, creativa. Un nuevo espacio para estudiar, trabajar, disfrutar y vivir de todos y para todos los y las bilbainas*”.

PASEO EL CANAL

El **Paseo el Canal** es la vía colindante al antiguo Canal de Deustu, el que discurre de manera paralela a Avenida Zarandoa, Calle Morgan y Calle Ballets Olaeta. Comienza en la intersección con el Puente Frank Gehry, finaliza en la parte final de la Avenida Lehendakari Aguirre y no tiene afecciones en domicilios, ni en comercios.

Como consecuencia de las actuaciones urbanísticas en la zona, se ha procedido a dar de baja el nombre de Calle Canal de Deusto del Callejero Municipal ya que con la nueva urbanización de la zona esta vía ha desaparecido en su integridad.

Con la incorporación de Paseo El Canal, el callejero de la Villa cuenta desde hoy con 919 calles.

Las placas de Paseo El Canal son las primeras de nueva colocación con la imagen oficial aprobada por el Pleno de noviembre de 2016. Los principales cambios respecto a la versión utilizada en las anteriores placas es la desaparición de la corona, así como la rama de laurel y olivo del escudo, cuya forma ya no es tan ovalada.